



PRENTSA-OHARRA

Udalak 118.000 euro bideratuko ditu Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan urtariletik ekainera egiten diren jarduera osagarriak eta eskolaz kanpokoak diruz laguntzeko

Joan den ikasturtean baino % 10 handiagoa da aurtengo kopurua, ikasleen curriculum-a aberastu eta haien prestakuntza integrala lagundu nahi baita

Iruñeko Udalak 118.000 euro bideratuko ditu 2017-2018ko ikasturteko 2. eta 3. hiru hilabeteetan (2018ko urtarila-ekaina) Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publiko eta itunduek antolatutako jarduera osagarriak eta eskolaz kanpokoak diruz laguntzeko. Kultura eta Hezkuntzako Alorrak onartu ditu deialdiaren oinarriak, eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzeko daude. Oinarriak argitaratzearekin batera eskabideak aurkezteko epea hasiko da, hogeiei egun naturalekoa, argitalpen-egunetik aitzina kontatuta.

Zenbatekoa % 10 hazi da joan ikasturtekoaren aldean, orduan 107.220 euro bideratu baitziren bi lauhileko horietan egindako eskolaz kanpoko jarduerak finantzatzeko. Deialdi honen bitartez, Iruñeko Udalak bide eman nahi dio jarduera osagarriak eta eskolaz kanpokoak garatzeari, eta garapen horretan laguntza eman nahi du, xede hartuta bai curriculum-arloak osatzea eta ikasleen curriculum-a aberastea, bai ikastetxeari bultzada ematea, bere ingurunera zabaltzea, eta ikasleen prestakuntza integrala sustatzea, haien kultur ezagutza zabaltzeaz, gizarteratzea prestatzeaz eta aisialdiaren erabileraz bezainbatean.

Deialdian parte hartzen duten ikastetxe publikoetako zuzendarien eskaerei erantzunez, diru-laguntza handiagoa jasoko dute “ikasle babesgabe” gehien dituzten ikastetxeek, Nafarroako Gobernuak Hezkuntzako Departamentuak ezarritako irizpideekin bat.

Ikastetxe bakoitzeko laguntzak, matrikulen kopuruaren eta “ikasle babesgabeen” kopuruaren arabera

Aldi bakoitzerako gehienez aurreikusi den guztizko kopurua ikastetxe eskatzaileen artean banatuko da, honela: gehienez emango den guztizko kopuruaren % 50 deialdira aurkeztu diren ikastetxeen artean hainbanatuko da; % 25, proportzionalki, ikastetxe bakoitzak dituen ikasle-kopuruaren arabera, eta gainerako % 25a, ikastetxeak dituen “ikasle babesgabeen”



matrikula-kopuruaren arabera, betiere ikasle horien egoera hala jasota badago Nafarroako Gobernuako Hezkuntza Departamentuko erroldan (EDUCA programa).

Prozedura hori antzekoa da ikastetxe eskatzaile guztien kasuan, salbu eta Helduen Oinarrizko Hezkuntzako ikastetxe publikoen eta Hezkuntza Bereziko ikastetxe publiko zein itunduen kasuan; zeinek ikastetxeari dagokion kopurua jasoko baitute.

Diru-laguntzak jaso ahal izateko, ikasleek izan beharko dute jardueren protagonistak, eta ikastetxeko irakasleak aritu beharko dira gidari-lanetan. Ez dira diruz lagunduko honako hauek: Udalaren edo Nafarroako Gobernuaren beste programa edo deialdi propioetan sartutako jarduerak; curriculumaren edozein gairi buruzko ikaskuntzan laguntza emateko modu erregularrean ematen diren eskolak edo jarduerak, edo curriculumekoak ez diren beste batzuk, hala nola hizkuntzetakoak, mekanografia, informatika eta abar; inprentan argitaratzen den eskola-egunkari edo aldizkaria; eta jardueretako monitoreendako, laguntzaileendako edo arduradunendako diru-sariak edo opariak, eta joan-etorrietarako edozein dieta.

2017an, Udalak 107.220 euro banatu zituen, guztira 20.000 bat ikasle biltzen dituzten 44 ikastetxeren artean, ikasturteko bi azken hiruhilekotan eskolaz kanpoko jarduerak egiteko.

Iruñean, 2018ko apirilaren 26an 2018

